

Interes orokorreko antolamenduak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2018ko urriaren 6tik 11ra bitarteko astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

Estatuko Aldizkari Ofiziala 2018/10/10

- Laneko Zuzendaritza Nagusiaren Ebazpena, 2018ko irailaren 27koa, hotz industrialaren industriaren sektorearen hitzarmen kolektiboa erregistratu eta argitaratzen duena. **13839 xedapena- 37 or.**

II.- ANTOLAMENDU ARAUEMAILEAK:

Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala 2018/10/10

- 15/2018 Foru Araua, irailaren 26koa, irailaren 11ko Foru Gobernu Kontseiluaren 2/2018 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua baliozkotzeko, Arabako zerga araudiari egokitzeko balio erantsiaren gaineko zergan, zerga berezietan, berotegi efektuko gas fluortuen gaineko zergan eta berandutze interesean egindako zenbait aldaketa. **3729 xedapena - 1 or.**

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2018/10/06

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. - Premiazko neurriak.** - 15/2018 Errege Lege Dekretua, urriaren 5koa, energia-trantsiziorako eta kontsumitzaileen babeserako premiazko neurriei buruzkoa. **13593 xedapena - 38 or.**

2018/10/09

- **GOBERNUKO PRESIDENTETZA. - Antolamendua.** - 1266/2018 errege dekretua, urriaren 8koa, ministerio-sailen egitura berriz antolatzen duen ekainaren 6ko 355/2018 errege dekretua aldatzen duena. **3715 xedapena - 1 or.**

- **BALORE-MERKATUAREN ESPAINIAKO BATZORDEA.** - **Inbertsio kolektiborako erakundeak.** - Balore-merkatuaren Espainiako Batzordearen 4/2018 zirkularra, irailaren 27koa, inbertsio-zerbitzuak ematen dituzten erakundeek gordetako informazioari buruzko 1/2010 zirkularra, uztailaren 28koa, aldatzen duena, eta, halaber, 7/2008 zirkularra, azaroaren 26koa, kontularitza-arauei, urteko kontuei eta inbertsio-zerbitzuetako enpresek, inbertsio kolektiborako erakundeen sozietate kudeatzaileek eta kapital-arriskuko erakundeen sozietate kudeatzaileek gordetako informazio-egoerei buruzkoa, aldatzen duena. **13716 xedapena - 24 or.**

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2018/10/11

- **TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA.-** AGINDUA, 2018ko urriaren 2koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, indargabetuta uzten duena Osasun eta Kontsumoko sailburuaren 2010eko otsailaren 17ko Agindua, kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubide eta interesak sustatu eta babesteko toki-erakundeei eta haiek sustatutako erakundeei diru-laguntzak emateko programa arautzen duena. **4980 xedapena - 2 or.**
- **KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA.-** EBAZPENA, 2018ko urriaren 5koa, HABEko zuzendariarena, zeinaren bidez epea luzatzen baita HABEko zuzendariaren 2018ko abuztuaren 28ko Ebazpenean adierazitako eskabideak aurkezteko, eta horretarako deialdia egin. Ebazpen horren bidez arautzen dira 2017-2018ko ikasturtean HABEren euskara-mailak edo baliokideak gainditu dituzten ikasleei diru-laguntzak emateko prozedura eta baldintzak. **5002 xedapena - 1 or.**

A.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala)

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2018/10/09

- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA.** - Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 1590 /2018 FORU AGINDUA, urriaren 1 ekoa; honen bidez, 136 eredu onesten da: «Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga. Loteria eta Apustu jakin batzuen gaineko Karga Berezia. Autolikidazioa». **6 or.**

2018/10/11

- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA .** - Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 1592/2018 FORU AGINDUA, urriaren 1ekoa, berrikuntza bultzatzeko Europako funtsetan partaidetzak eskuratzeko gordailuei buruzko urteko Informazio-Aitorpena egiteko 782 eredu onesten duena. **15 or.**

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2018/10/11

- **GIZARTE POLITIKAKO DEPARTAMENTUA.** - 621/2018 Foru Agindua, urriaren 9koa, Gipuzkoako Boluntariorzaren 2018ko Sariaren deialdia egitekoa. **6815 xedapena - 4 or.**

E.B.A.O. (Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala): **Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala**

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es



MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2
HENAO, 26 - 48009 BILBAO